Eguneko menuak alderatzen

Askotan bazkaltzen duzu etxetik kanpo? Zein da aukerarik onena? Euskadi Irratiko *Faktoria* saioko elkarrizketa bat ardatz hartuta, eguneko menuen bilakaeraren inguruan arituko gara.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Zeure ohiturak aztertu, eta iritzia labur idatzi.**
- **Solasaldiaren ulermen xehea landu.**
- **Konparazio-egiturak errepasatu eta aukera berriak ezagutu.**
- **Aurkaritzako lokailuak landu, ideiak alderatzeko.**
- **Gustuko menua diseinatu, eta ahoz azaldu.**
- **Bazkaltzeko gomendioa eman idatziz, euskaltegiko blogean.**



Unsplash

Entzun aurretik

BAKARKA

1. Etxetik kanpo bazkalduz gero

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Hausnartu galdera hauen inguruan. Ondoren, bota erantzuna, labur, taldeko foroan.

- **Zenbatetan bazkaltzen duzu etxetik kanpo?**
- **Zer baloratzen duzu gehien eguneko menu batean?**
- **Zer nahiago duzu: kantitatea ala kalitatea?**
- **Aldatu dira zure jateko ohiturak azken urteotan?**

Normalean, astean behin bazkaltzen dut kanpoan. Eguneko menuan, janariaren kalitatea baloratzen dut gehien. Nahiago dut kalitatea kantitatea baino, plater goxoak eta orekatuak jatea gustatzen zaidalako. Azken urteotan, nire jateko ohiturak aldatu egin dira: lehen ez nion horrenbeste erreparatzen zer hartzen nuen, baina orain osasuntsuago jaten saiatzen naiz.


Unsplash

Irakurri ikaskideen erantzunak foroan.

Entzun bitartean

BAKARKA

2. Zer kontatu digute irratsaioan?

Entzun arretaz Euskadi Irratiko *Faktoria* saioko solasaldia; Errenteriako Gaztelu Ostatuko jabe eta sukaldari Haritz Erzibengoa gonbidatu dute eguneko menuaren inguruan hitz egiteko. Entzun testua, eta aukeratu zer gai aipatu dituzten.

- [x] 1. Eguneko menuaren jatorria
- [ ] 2. Menu begetarianoen gorakada
- [ ] 3. Sukaldaritzako errezeta tradizionalak
- [ ] 4. Errazioen tamaina
- [ ] 5. Osasunarekiko kezka
- [ ] 6. Jatetxeen prezioen igoera
- [ ] 7. Sukaldarien lan-baldintzak
- [ ] 8. Elikagaien jatorri ekologikoa
- [ ] 9. Kultura gastronomikoaren bilakaera
- [ ] 10. Etxeko sukaldaritzaren eragina jatetxeetan
- [ ] 11. Elikagaiekiko alergiak
- [ ] 12. Bezeroen ohitura-aldaketa
- [ ] 13. Edari alkoholdunen kontsumoaren jaitsiera
- [ ] 14. Bezeroen eskakizun berriak
- [ ] 15. Euskal Herriko jatetxe ospetsuen zerrenda
- [ ] 16. Eguneko menuaren errentagarritasuna

Eguneko menua betikoa

guau gure audioa



Unsplash

Jarraian, esan ondoko baieztapenak egia ala gezurra diren.

a	• Eguneko menua lege bidez araututa egon zen.	E	G
b	• Lehen, bezeroak exijenteagoak ziren.	E	G
c	• Errazioen tamaina aldatu egin da.	E	G
d	• Jendeak, gaur egun, osasuna gehiago hartzen du kontuan.	E	G
e	• Eguneko menuak ez dira aldatu urteetan.	E	G
f	• Oraingo jatetxeek berezitasunak eskaintzen dituzte.	E	G

Elkartu ikaskide batekin erantzunak alderatzeko.
Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

TALDEAN

Entzungaian diotenez, urteekin eguneko menuak bilakaera izan du. Elkartu ikaskide batekin, eta adierazi nolakoa zen lehen eta nolakoa den orain, entzundakoa kontuan hartuta.

LEHEN	ORAIN
• *Etxeko janaria zen: eltzekoak...*	• *Gauza bereziak, jatetxe bakoitzak bere ikutua...*

Erantzunak 7. orrialdean daude.

Entzun ondoren

TALDEAN

3. Ohiturak alderatzen

Jarraitu ikaskidearekin. Irratsaioan lehengo eta oraingo menuak alderatu dituzte. Hemen dituzue gaiarekin lotutako esaldi batzuk; osatu esaldiak konparazio-elementuak erabilita.

1. Orain lehen ***baino*** kantitate txiki***agoa*** jartzen dute eguneko menuan.
2 Gaur egun lehen _____ diru _____ gastatzen dugu jatetxeetan.
3. Jatetxeetan _____ _____ menu osasuntsu_____ eskaintzen dituzte.
4. Lehen ez zegoen orain _____ aukera etxetik kanpo bazkaltzeko.
5. Nahi_____ dut etxean bazkaria prestatu, jatetxe batera joan _____.
6. Egun, jendeak nahi_____ du kalitatea kantitatea _____ .
7. Oraingo menuak lehengoak _____ berezi_____ dira.
8. Lehen ez zegoen orain _____ exigentzia eguneko menuarekin.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

HAINBAT KONPARAZIO-EGITURA GOGORATZEKO

Berdintasuna:

- bezain, adina, beste
- besteko, adinako, bezainbesteko (izen neurgaitzekin)
- bezala, bezalako

Desberdintasuna:

- baino... -ago, baino gehiago/gutxiago
- noren/zeren aldean

Lehengo menuak, oraingoen aldean, merkeagoak ziren.

- -rik... -ena
- -egi, gehiegi, gutxiegi
- gero eta... -ago

Gero eta osasuntsuago jaten dugu.

- honen/horren/hain, honenbeste/horrenbeste/hainbeste

Ez dira horren onak. Ez dugu horrenbeste jan behar.



TALDEAN

4. Alderatzeko modu gehiago

Jarraitu ikaskidearekin. Gauzak alderatzeko, aurkaritzako lokailuak ere erabil ditzakegu. Lehenengo eta behin, aztertu adibideok. Ondoren, osatu esaldiak eguneko menuaren inguruko aldaketak eta kontrasteak adierazteko, lokailu egokia aukeratuta (aukera zuzen bat baino gehiago egon daiteke).

- Lehen, errazio handiagoak eskaintzen ziren; gaur egun, **aldiz**, jendeak ez du horrenbeste jaten.
- Bezeroek, egun, kalitatea baloratzen dute; lehen, **ordea**, kantitateari garrantzi handiagoa ematen zioten.
- Eguneko menuak aldatu egin dira; **dena den**, haien helburuak antzekoa izaten jarraitzen du.
- Jatetxeek aukera osasungarriagoak eskaintzen dituzte; **alabaina**, bezero guztiek ez dituzte beti horiek hautatzen.

1. Lehen, etxeko janaria eskaintzen zen; gaur egun, _____, menuak sofistikatuagoak dira.
2. Bezeroak gero eta exijenteagoak dira kalitatearekin; _____, ez dute asko gastatu nahi.
3. Errazioak txikiagoak dira; _____, jende askok nahiago du horrela jan.
4. Menuak osasungarriagoak dira; _____, jende askok janari azkarra aukeratzen du.
5. Aukera gastronomiko gehiago dago; jatetxe askok, _____, etxeko sukaldaritzaren alde egiten dute oraindik.

dena dela		**hala eta guztiz ere**
alabaina	**aldiz**	**ordea**

Partekatu talde handian.
Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

AURKARITZAKO LOKAILUAK

Aldez aurretik esandako zerbaitekiko aurkaritza edo kontrastea adierazteko erabiltzen dira.
***Baina* juntagailuaren antzekoak dira.**

- ***Ordea, ostera, aldiz, berriz***: antzekoak dira, eta, oro har, perpausaren hasieran, tartean zein bukaeran ager daitezke.
- ***Hala ere, hala eta guztiz ere*:** bigarren perpausaren hasieran kokatuko dugu. Maiz agertzen dira *eta* edo *baina* juntagailuekin batera.
- ***Alabaina*:** bi adiera har ditzake, aurkaritza eta azalpena.
- ***Dena den, dena dela, nolanahi ere:*** baliokideak dira; normalean, bi perpausaren artean jartzen dira.


Pixabay


Pixabay

TALDEAN

5. Zeuen gustuko menua diseinatu

Elkartu hiruko taldeetan. Diseinatu jatetxe bateko eguneko menua; horretarako, kontuan izan zer den garrantzitsua, zeuen ustez, eta jarraitu gidoiari.

Eguneko menua

Lehenengoak:
- _____
- _____
- _____
- _____

Bigarrenak:
- _____
- _____
- _____
- _____

Postreak:
- _____
- _____
- _____
- _____

€

Menuaren filosofia adostu:
Zeri emango diozue garrantzia? Nola?

- Erakargarritasuna
- Kalitatea
- Prezioa
- Aniztasuna
- Osasuna
- Errentagarritasuna
- Jasangarritasuna
- Bertakoa eta garaikoa
- Osagaiei buruzko informazioa
- Oreka nutrizionala
- Berezitasunak eskaini
- ...

Erakutsi irakasleari, zuzentzeko.

TALDEAN

6. Eguneko menuen azoka

Prestatu duzuen eguneko menua ahoz azalduko duzue, talde handian. Jarri menua ikusgai, eta azaldu zergatik proposatu duzuen hori, eta zein den zeuen filosofia. Proposamen guztiak entzun ondoren, aldera itzazue talde handian, eta aukeratu onena guztion artean.



Feedbacka irakasleak egingo dizue.

BAKARKA

7. Gomendioa blogean

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Euskaltegiko blogean, ondoko ikasgelakoek gomendioa eskatu dute taldeko bazkaria egiteko. Erantzun mezuari, eta idatzi sarrera labur bat, 75 hitz ingurukoa, zeure iritzia azaltzeko.



Eman irakasleari, zuzentzeko.

ERANTZUNAK

2. Zer kontatu digute irratsaioan?

- 1, 4, 5, 9, 10, 12, 14, 16
- a- egia; b- gezurra (orain exijenteagoak dira, kultura gastronomiko handiagoa dagoelako); c- egia, orain ez da hainbeste jaten; d- egia; e- gezurra (orain ez da hainbeste jaten, eta beste modu batera jaten da, osasunari gehiago erreparatuta); f- egia (jatetxe bakoitzak bere ukitua ematen dio).
- Lehen: etxeko janaria, janari asko plateretan, betekadak, ohitura zen 1., 2. platera, postrea, kafea eta edaria hartzea.
  Orain: aukera gastronomikoa, gauza bereziak, janari-kopuru txikiagoa, errazio txikiagoak, exijenteagoak, kultura gastronomiko handia, osasunarekiko kezka.

3. Ohiturak alderatzen

1. Orain lehen **baino** kantitate txiki**agoa** jartzen dute eguneko menuan.
2 Gaur egun lehen **baino** diru **gehiago** gastatzen dugu jatetxeetan.
3. Jatetxeetan **gero eta** menu osasuntsu**agoak** eskaintzen dituzte.
4. Lehen ez zegoen orain **adina/beste** aukera etxetik kanpo bazkaltzeko.
5. Nahi**ago** dut etxean bazkaria prestatu, jatetxe batera joan **baino**.
6. Egun, jendeak nahi**ago** du kalitatea kantitatea **baino**.
7. Oraingo menuak lehengoak **baino** berezia**goak** dira.
8. Lehen ez zegoen orain **adinako/besteko** exigentzia eguneko menuarekin.

4. Alderatzeko modu gehiago

1- aldiz, ordea; 2- alabaina; 3- dena dela; 4- hala eta guztiz ere; 5. alabaina...

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Legez ezarritakoa. Legeak agindutakoa.
Bilakaera izan du eguneko menu horrek. Aldatuz joan da menua.
Eltzekoak. Lapikoan egiten diren janariak: babak, txitxirioak, dilistak...
Betekadak. Behar baino gehiago jatea.

TRANSKRIPZIOA

Oihane Yustos: Bai, jakina. Haritz Erzibengoak hartu gaitu han bertan, bazkariak emateko lanak bukatu berritan. Eta, aurrena, gurasoak, eta orain bera, eguneko menua zainduz, aldatuz, goxatuz ari dira lanean bertan. Azaldu digu ea, herritar batzuei iruditzen zaien bezala, eguneko menuetako plateretan gero eta janari-kopuru txikiagoa ateratzen ote duten. Bainan (Baina), horren aurretik, kontatu digu eguneko menuaren sorrera. Zuk badakizu nola hasi ziren jatetxeetan eguneko menuak ematen?...
Jon Artano: Ez.
Oihane Yustos: ... Nondik norakoa den jatetxeetan eguneko menua eskaintzeko ohitura hori?
Haritz Erzibengoa: Eguneko menuaren jatorria, berez, duela urte batzuk atzera dator, eta, berez, legez ezarritako, ba, kondizio bat zen: jatetxeek eskaini behar zutela lehenengo platera, bigarren platera eta postre bat, edaria barne, prezio egoki batean. Eta hori legeak esaten zuen. Orduan, jatetxe guztiak behartuta zeuden horrelako menu bat egitera. Hori duela, ba, 60 urte edo horrelako zeozer.
Oihane Yustos: Urteekin bilakaera izan du eguneko menu horrek, ezta? Irudipena daukagu txikitu egin ote diren razioak (errazioak); baina, bestalde, erraza ere ez da izango honi eustea eta errentagarri bihurtzea eguneroko menua, ez? Nola ikusten duzu zuk hori dena?
Haritz Erzibengoa: Osea (Tira), aldatu, bai... bai aldatu da. Osea, hasi zenean-edo zen pixka bat etxeko janaria, ba, kanpoan jatea, ez?, pues (ba), lapikoa, eltzekoak, pastak, arrozak eta pixka bat etxean egiten zena eta etxeko-andreek sukaldatzen (kozinatzen) zutena, ba, horixe zegoen, ez?, jatetxeetan. Eta, denborarekin, bilakatu da aukera gastronomiko bat, ez?; eta, aukera gastronomiko (gastronomikoa) aurrera doan heinean, ba, jatetxe bakoitzak bere ikutua (ukitua) eta bere gauza bereziak ezartzen ditu, eta bakoitzak bere berezitasunean, ez?
Oihane Yustos: Gure galderari erantzunez, eta hasieran aipatu dugun zalantza horri erantzunez, Haritz Erzibengoak aitortu digu beste aldaketa asko izan direla eguneko menuaren inguruan. Esate baterako, aldatu egin da ateratzen dituzten errazioen tamaina, baina baita bezeroen gustua ere, eta haien eskakizunak ere bai. Dena aldatu da.
Haritz Erzibengoa: Bai, agian lehen, ba, joera gehiago zegoen, ez?, platerak handiagoak eta betekadak eta, pues ez dakit, ba, potajea, eta gero haragia saltsan eta ardo botila-erdia, eta gero arroz-esnea, eta gero kafea eta txupitoa, eta ez-dakit-zer, eta bueno... Hori asko aldatu da, asko aldatu da.
Oihane Yustos: Ez dugu horrenbeste jaten.
Haritz Erzibengoa: Ez da hainbeste jaten, eta beste modu batera jaten da. Jendeak...
Oihane Yustos: Exijenteagoak gara orain?
Haritz Erzibengoa: E, bai, bai. Bezeroak, bai. Klaro (Bai ba), kultura gastronomiko gehiago (handiagoa) dago, eta bai, exijenteagoak gara. Eta gero ere badago osasunarekiko, ba, beste kultura bat eta beste kontzientzia bat, ez? Eta, orduan, pues bueno, nahiz eta kanpoan jan, pues, jendea saiatzen da, pues bueno, kanpoan jate horretan ahalik eta gehien bere gustuko edo bere osasunarekin bat datorren aukerak eskatzea (eskatzen).